

109 – Irakurmena lantzen

HABEko teknikaria – *Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea.*

Tailer honetan gai hauei erantzuten saiatuko gara: Zer da irakurtzea? Zer da irakurketan trebea izatea? Zein funtzio du irakurketak hizkuntzaren ikaskuntzan? Nola sustatu irakurtzeko zaletasuna bigarren hizkuntzen ikaskuntzan? Zein helburu didaktiko planteatu behar ditugu? Zer da prozesuzko ikusmoldea eta zein ereduren alde jo behar dugu? Nola aurre egin didaktikoki irakurketari/testuari? Objektu linguistiko gisa edota informazio-bide bezala? Zein testu-mota landu behar ditugu? Zein irakurketa-mota sustatu behar ditugu? Zein ulertze-tresnak erabil ditzakegu ikasgelan? Eta zein jarduera planteatu ditzakegu?

Ikasgela birtuala

Moodle plataforman.

Baldintzak eta betekizunak

Internetarako irteera/ Internetarako konexioa duen ordenagailua erabiltzeko aukera izatea.

Helburuak

- 1 Irakurmena ikasgelan nola eta zertarako lantzen duzun aztertzea.
- 2 Irakurmenaren garrantziaz jabetzea.
- 3 Irakurmenaren inguruko usteak azalaratzea eta egungo printzipio teorikoekin alderatzea.
- 4 Printzipio horiek langaietan aztertzea.

Gaiak

- 1 Irakurketaz hausnartzea
- 2 Irakurketa-prozesua
- 3 Irakurketa-motak
- 4 Irakurketaren helburuak
- 5 Hiru etapako eredu didaktikoa
- 6 Irakurketa estentsiboa: irakurtzeko zaletasuna

Jarduerak

- 1 Irakurketaz hausnartzeko galderak
- 2 Irakurriaren ulermena zertan den
- 3 Irakurketa-prozesua
- 4 Irakurtzeko arrazoiak eta irakurtzeko modua
- 5 Irakurketa-motak langaietan
- 6 Irakurketaren helbururak
- 7 Irakurketa estentsiboa
- 8 Hiru etapako eredua
- 9 Balorazio-orria bete eta bidali

Metodologia

Ikastaroa ikaslearengan dago zentratuta; eta etxetik edota lanlekutik egin daiteke.

Ikaslea ez da bakarrik arituko, harremanak izango baititu tutorearekin eta ikaskideekin, posta elektronikoaren bidez. Lantaldeak sortzeko aukera ematen du ingurune telematikoak; eta foroetan eta eztabaidetan parte hartzeko ere.

Ikasleari, besteak beste, iraunkortasuna, erantzukizuna eta zalantzak idatziz plazaratzeko gaitasuna eskatzen zaizkio. Horrezaz gainera, ingurunean sartzeko maiztasunak gutxienik astean hirutan izan behar du, tutorearen eta ikaskideen proposamenak, lanak eta ekarpenak lehenbailehen bereganatzeko.

Tutoreak ikastaroaren plangintza, helburuak eta ebaluazio-irizpideak ikasleen aurrean jarriko ditu, ohar-taulan edo. Baita proposatutako egutegia ere, betiere adibide moduan. Norik bere eritmoari jarraituko dio, noski, ezagutzaren eraikitze-lanetan.

Ebaluazioa

. Noiz

Ikasleek prozesua hasten duten egunetik aurrerantzen duten artekoaren **ebaluazio etengabea** eta **segidakoa** eginez neurtzen da ikaskuntzen lorpena. Horrek hezitzailea ahalbidetzen du heziketa-egintza osoan ikasleek burutu duten prozesua ezagutzeko, aurreikusteko eta egiaztatzeko.

. Zer eta nola

Ebaluazio etengabea ikastaroaren plangintzan (lan-egitasmoan) proposatutako jardueri buruzko lanetan oinarrituta burutzen da, baita ikastaroan izandako parte-hartzetik, jarraipenetik (eta IKT-en erabileratik) abiatuta ere. (IKT: Informazio eta Komunikaziorako Teknologiak.)

Jarduerak proposatutako xede-helburuen lorpenari buruzko iritzien arabera neurtzen dira, eta balorazioak era honetara burutzen:

- . **A** (*Oso jarduera ona*, eskuratutako ezagutzei berrikuntzak eta originaltasuna eransten diena.)
- . **B** (*Jarduera ona*, proposatutako helburuak kalitatez landu direla adierazten duena.)
- . **C** (*Jarduera zuzena*.)
- . **D** (Proposatutako helburuak *gainditu ez izana* adierazten du.)
- . **E** (Proposatutako helburua erdiesten *parte hartu ez izana* adierazten du.)

Ikastaroa gainditzeko beharrezkoa da egin beharreko **jardueretatik gutxienez %75 burutu izana**, eta horietako bakoitzean C kalifikazio edo goragokoa lortzea.

Oinarrizko bibliografia

Ferran, F. 1999. *Leer: ¡acción!* Donostia: HABE. (Irakasleen formaziorako bideo-saila 9-10)

Cornaire, C. 1994. *Irakurketa hizkuntzen irakaskuntzan. Gogoeta batzuk.* Donostia: HABE. (Itzulpen Saila 36)

Hernández, M. J. 1991. Del pretexto al texto. *Cable 7*: 9-13.

Giovannini, A. et al. 1996. *Profesor en acción - Destrezas 3.* Madrid: Edelsa.

Varios. 2000. La comprensión lectora en el aula de E/LE. *Carabela 48* (monográfico).

Bibliografia osagarria

Williams, E. 1987. *Irakurketa hizkuntz klasean.* Donostia: HABE. (Itzulpen Saila 16)

Cassany, D., Luna, M., Sanz, G. 1994. *Enseñar lengua.* Barcelona: Graò.